

Nire egunerokoa

Fredy, laguna:

Guztia hau oso zaila da. Getxora etortzea ezberdina izango zela pentsatu nuen. Nire amatxo izan zen aurkitu nuen lehenengo gauza ezberdina. Baziren hiru urte ez nuela ikusten eta asko aldatu zela iruditu zitzaidan. Ezberdin hitz egiten zuen, gu ikustearekin oso pozik zegoen, baina era berean oso nekatuta ikusi nuen. Hiru tokitan lan egiten zuela esan zidan, eta ia ez zuela lo egiteko astirik ere bai. Orduan jakin nuen benetan zenbat kostatu zitzaion hileroko heltzen zitzaigun eta familia osoarentzat hain ona zen diru guzti hori bidaltzea.

Ikastetxera heldu nintzenean txarto pasatu nuen. Galduta sentitzen nintzen, ez nekien nora joan edo nori galdetu. Neska-mutil guztiak taldeetan egoten ziren, ni izan ezik. Nigana hurbildu nahi ez zutela pentsatzen nuen.

Egunero gogoratzen dut nola joaten ginen Raul, zu eta hirurok ikastetxera, eta zein ondo pasatzen genuen. Denak ezagutzen nituen eta denek ezagutzen ninduten ni; ondo ulertzen nituen irakasleak. Baina hemen zaila da irakasle batzuk ulertzea.

Oso ezberdina da dena, jende asko dago eta txarrena da, gainera, nola begiratzen nauten. Niri begira egoten direla eta nitaz barre egiten dutela iruditzen zait, ikastetxean arrotz moduan ikusten naute.

Nire amatxo eta institutuko tutorea benetan saiatzen dira egoera hori normal moduan ikus dezadan eta garrantzi gehiegirik eman ez diezaiodan.

Gauzak pixkanaka hobetzen doaz, baina nik nahi baino askoz polikiago. Beno, gutxienez badakit zer espero behar dudan. Institutuan gauzek nola funtzionatzen duten ikasi dut, zerbait behar dudanean norekin hitz egin ahal dudan ikasi dut eta... orain lagun bat ere badaukat.

Iker du izena eta hemengoa da, Getxokoa. Egun batean esan zidan ulertzen ez nuen guztia berari galdetzeko. Eta, gutxi-gutxika, hitz egiten hasi ginen. Adiskide ona da.

Oraingoz txarrena da arratsaldeetan etxera heltzea; amatxo egun eta gau dago lanean eta bakarrik ikusten dut larunbat eta igandean. Orduan egon nahi du amatxok Mary eta nirekin eta, beraz, ezin naiz Ikerrekin eta auzoko beste lagun batzuekin atera...





Ikastetxeak... Sarrerako atea

Aspaldi, gero eta gehiago, ikastetxeetako patioetan ohikoak ez diren izenak, munduko beste alderdi batzuetako doinuak eta beste hizkuntza batzuk entzuten dira eta beste kolore bateko azalak ikusten dira.

Gehienok noizbait arrotz sentitu gara tokiren batean, aldi batean bakarrik izan bada ere, eta ezin dugu segurtasun osoz esan lana, etxebizitza aldaketa edo bestelako arazo batzuk direla medio inoiz berriz arrotz sentituko ez garenik.

Inmigrazioak gehitzen jarraituko du, atzera-martxarik gabe.

Hartzeko tokia

Egungo gizarteak gero eta kultura anitzagoa du. Jendea joan eta etorri egiten da eta horrek ondorioak izaten ditu pertsona horiek hartzen dituzten tokietako gizarte-bizitzan eta kulturen. Getxo, egun, udalerrri hartzailea da beste herrialde batzuetako herritarrak heltzen direlako.

Atzerriko familia gehienak ikastetxeekin harremanak izaten dituzte, ikasten egoteko adina duten seme-alabak dituztelako. Orduan, ikastetxeak eta institutuak Getxora sartzeko

atea eta atondoa direla esan dezakegu. Horietan hasten da bizikidetzarako eta gizarteratzeko abentura; eta, hain zuzen, bizikidetzara hori oso baliotsua izango da bai gure seme-alabentzat eta bai guretzat ere, xehetasun aberatsak eskaintzen dituelako.

Horri esker, gurasoek modu aktiboan, bakarka edo AMPAren bitartez parte har dezakete pertsona horiek ahalik eta modurik adiskidetsuenean gizarteratzen laguntzen.

Batzuetan errealitate hori urrunetik eta kuriositatez ikusten dela ematen du. Askok gehienez honelakoak esaten dituzte: "niri semearen edo alabaren ikasgelan boliviar bi eta marokoar bat daude". Gurasoekin zerikusirik ez duela ematen du horrek, alabaina.

Errealitate berria

Atzeritarrek errealitate berriari, kultura eta ohitura ezberdinei, eta batzuetan bat ere ezagutzen ez duten hizkuntzei egin behar diete aurre. Gainera, seme-alaben kasuan, senideek erabaki dute bere herrialdeetik hainbat kilometrotara dagoen Getxo udalerrira etorri eta ikastetxe edo institutu jakin batera joatea. Gurasoentzat bere herrialdeetik

joateko erabakia beharrezkoa izan da eta ia nahitaez hartu behar izan da.

Beharrezko informazioa

Hemen beharrezko informazio guztia daukagunez uste dugu atzerriko familiek ere badutela informazio hori; ez gara konturatzen batzuetan gurasoek ez dutela hizkuntza ezagutzen, edo zailtasunez ulertzen dutela, eta seme-alabak ibiltzen dira bitartekari moduan, sarri ez oso modu eraginkorrean.

Egia esan, gerta daiteke xehetasun txikiak ere ez ezagutzea. Karreletan eta komunikabideetan ematen den informazioa nahikoa dela pentsatzen dugu.

Imajinatu seme-alabak ikastetxe batean dituzuela eta ez dakizuela:

- Zein den ikastetxearen hezkuntza-proiektua.
- Nola jorratzen den erlijioaren gaia.
- Zein ikasgai ematen diren.
- Zer diren hizkuntza ereduak.
- Zergatik den garrantzitsua seme-alabak euskara ikastea.
- Zein betebeharrak eta eskubide dituzten familiek.
- Nola ebaluatzen diren ikasleak.

- Zein diren informazioa emateko eta irakasleekin harremanetan egoteko bideak.
- Eskolaz kanpoko zein jarduera eskaintzen diren.
- Jantokian zein janari ematen den.

Baina ez hori bakarrik, besteekiko ezberdina zarela sentitzen duzu eta hitz egitean ez dizute nahi duzun guztia ulertzen.

Informaziorik eta arretarik ez izatean babesik gabe eta abandonatuta sentitzen zara, sentimendu hau handia da eta gelditu uzten zaitu.

Aurreiritziak baztertzea

Alde batera utzi behar ditugu gure aurreiritziak, eta hasieran behintzat beharizan jakin batzuk dituzten pertsonen lagundu behar diegu. Denon artean elkartruckerako alderdi oso aberatsak aurkituko ditugu, hori baita bizikidetzaren aberastasuna.

Adibidez, hezkuntza komunitate bateko, AMPAko, taldeetako guraso moduan jardun dezakegu; nahiz eta hau gutxien "erabiltzen den" jarduteko modua izan. Hori eginez gero, ekimen asko abiaraziko lirateke, hala nola:

- Familia etorkinei (gurasoei) laguntzeko plan bat diseinatu.
- Gizarte ingurunea eta erakunde nahiz elkarteek eskaintzen dituzten baliabideak ezagutzen lagundu.
- Pertsona horien interes eta beharizanen gainean sentsibilizatzen duten ekintzak sustatu.
- Irakasleekin koordinatuta lan egin, familia etorkinek dituzten kezkek eta errealitateak zein diren azaltzeko.
- Ate irekierako jardunaldiak antolatu kulturartekotasunari buruzko informazioa emateko eta horren gainean sentsibilizatzeke.
- Kultura ezberdinak batezko topaketak deitu, eta bertako eta atzerriko gurasoen arteko harremana sustatu.
- Hezkuntza-proiektuetan baztertzea ekiditeko balioak irakatsi beharra kontuan hartu.
- AMPAren informazioa hizkuntza ezberdinetara itzuli.
- Familia etorkinek eskola kontseiluan ordezkariaren bat izan dezaten sustatu.

- AMPAren batzarrean gurasoak sentsibilizatu.

Horrez gain, guraso bakoitza informazioa, aholkuak eta laguntza emateko egiazko bitartekari bat izan daiteke; laguntzeko zerbitzua izan daiteke; itzulpen zerbitzua eman dezake edo, behar izanez gero, familia etorkina eta ikastetxea koordinatzeko bitartekaria izan daiteke.

Laguntza eskaintzea

Kontua da gutariko bakoitzak, banako gisa, atzea ez ematea eta, aitzitik, lehenengo urratsa eman eta gure burua eskaintzea. Hau da, ezin diogu atzea eman errealitateari. Oso garrantzitsua da integratu nahi izatea eta lortzea, bata besteari egokitzea, horrela guztiok irabaziko baitugu. Azken finean, kulturarteko hezkuntza-erkidegoaren oinarriak ezarri behar ditugu eta horretan parte hartzen duten guztien elkarreragina modu positiboan balioetsi. Aldaketa guztiekin gertatzen den bezala honetan ere egokitzeak egin beharko dira eta denok parte hartu beharko dugu.

Irakurriz ikastea ...

Liburu honek migrazioen errealitatea erakusten die nerabeei, hau da, bere adineko beste gazte batzuek izan ditzaketen oztopo eta itxaropenak hurbi-lagotik erakusten dizkie.

Bizitzako bitxikeriak biltzen zituen liburuak izan zitezkeen, baina azkenean benetako lekuko bihurtu da.

Camerungoek edo Txinakoek ez dituzte gauzak era berean kontatzen, eta Kolonbiakoek eta Marokokoek ez dute bizitza antzera ikusten. Bakoitzak bere historia kontatu du eta bizimodua ulertzeko bere modutik gainera. Herrialdeko ipuin edo abesti batek pertsona

horien kulturara eta tradizioetara are gehiago hurbilduko gaituzte.

Eta, ondorio gisa, benetako kulturartekotasuna bizikidetzatik abiatuta: Cristin: (...) Egutero joaten da erosketak egitera gauza bakoitzaren ale bat eramanen poltsan: patata bat, arrautza bat, tipula bat, arroz pixka bat paper txiki batean bilduta... Azokara heltzen denean arrautza erakutsi eta eskuarekin nahi duen kopurua adierazten du. Dendariek eta erosketak egiten dabiltzan emakumeek "a-rrau-tza" oihukatzen diote. Berak hitza errepikatu egiten du. Jendea atsegina da, heltzen denean agurtu egiten dute eta berarekin hitz

egiten dute. "Ikasten zabilta" esaten diote irribarre eginez. Mundua izendatzen duten hitzak ikasten laguntzen diote eta, azkarra denez, laster ikasiko du hizkuntza.



El Viaje de Ana: historias de inmigración contadas por jóvenes.
Martínez Ten, Luz; Leal, Claudia; Bosch, Sandra.
Consejo de la Juventud de España Ar. 2002. www.cje.org.

Doan jaitsi dezakezu helbide honetan: www.cje.org

GETXON ETORKINEI LAGUNTZEKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN ELKARTEAK

PERUALDE

Etorkinen garapenerako lankidetzaren ematen duen eta horiei laguntzen dien elkarte.
944802128
perualde@euskalnet.net

ALRABETAH

Arabia eta Libiako Euskal Zentroa
944354694
vascarabe@euskalnet.net
www.vascolibio.org

PAGKAKAISA

Filipinetako etorkinen Euskadiko elkarte
609550184
pagkakaisa_paisvasco@yahoo.com

BILADI

Palestinako Kultura Zentroa
944308684
samera@euskalnet.net

BERDINTASUNA

Azterriko etorkinak gizarteratzeko eta berdintasuna lortzeko elkarte.
Etorkinei laguntzeko elkarte.
944306821
mlubian@hotmail.com

MÉXICOLINDO KULTURA ELKARTEA

616734252
asociacionmexicolindo@hotmail.com
http://www.getxo.net/kaixo/asociacionmexicolindo@hotmail.com

GETXO KOCARITAS

946080052
eelordi@caritasbi.org
centrovicaria6@caritasbi.org
www.caritasbi.org

EGINTZA

Etorkinei laguntza psiko-soziala emateko elkarte.
650017949
SILIVANOE@telefonica.net
www.egintza.com

TU PRÓJIMO

944647410
mluna@euskalnet.net
Etorkinei laguntzeko elkarte.

ADREBOL

Boliviaren Kirol Elkarte
944045330
adre_bol@hotmail.com

HARRESIAKAPURTUZ

Etorkinei Laguntzen dieten Euskadiko GKEen koordinatzailea. Harresiak Apurtuz, Etorkinei Laguntzen dieten Euskadiko GKEen koordinatzailea laurogeita hamargarren hamarkada hasieratik dabil lanean beste herrialde batzuetatik etorritako pertsonen eskubide berdinak izan ditzaten.
Kulturarteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekimen Komunitarioak Koordinatzeko Zentroa
Bailén kalea, 11 bis, behea, 48003 Bilbo
944150735 / Fax: 944156079
harresiak@euskalnet.net
www.harresiak.org
http://www.harresiak.org

BILTZEN

Helburuak:
Euskalgizartean dauden kultur komunitate ezberdinen arteko elkarrizketa dinamizatzea, baita komunitate horien eta administrazioaren arteko elkarrizketa ere.
Kultur arteko bitartekotzaren eta hezkuntzaren esparruan aholkuak ematea zerbitzu publiko eta pribatuei. Gai horren inguruan sortzen diren gatazkak kudeatzeko eta eraldatzeko prozesuak ematea.
Aniztasuna errespetatze aldera, pertsona guztiak erabat gizarteratu daitezzen laguntzea.
Blas de Otero kalea, 11, 48014 Bilbo
94001900 / Fax: 944000444
biltzen@biltzen.org



www.kaixogetxo.net

Udalerrian atzerritarrak hartzeko baliabideen gida.

Oso garrantzitsua da nola hartzen ditugun Getxora heltzen diren etorkinak, horren arabera gizarteratzeko prozesuak behar bezala beteko direlako. Izan ere:

- Heltzen diren eta hasieratik lagunduak sentitzen diren pertsonak gizarteratzeko eta bizikidetzarako prestuago egoten dira.
- Migrazio-prozesuek dakarten estresa gutxitu egiten da.
- Bereizkeriarik izateko aukera gutxiago izaten da.

Getxora heltzen den pertsonak informazio argirik eta ulergaririk ez badu egokitze-prozesua zailagoa izango da.

Oinarrizkoenak diren alderdiei nola egin aurre eta nola gainditu jakin behar du, adibidez: erroldatzea, gizarteratze zerbitzuak, lana eta etxebizitza bilatzea, osasun eta hezkuntza baliabideak, inmigrazioari lotutako elkarrekin, udalerriko kultura eta kirola, hizkuntza ikastea... etab.

Getxon, informazio guztia zazpi hizkuntzatan ematen da kaixogetxo.net delakoan.

Baliabideen gida bat da eta atzerritik datozen pertsonentzat baino ez da. Dena den, edozein herritarrek ere erabil dezake.



2007RAKO KULTURARTEKO JARDUEREN EGUTEGIA

Jarduerak Getxoko Udaleko Inmigratio eta Kulturartekotasun Unitateak garatuko ditu.

MARTXOA (19-23)

Nazio Batuen Erakundeak (NBE), arrazakeriaren aurkako konpromisoa berritzeko asmoz, urtero martxoaren 21ean Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna ospatzen du. Martxoaren 19tik 23ra bitartean “Aniztasunaren aldeko eta bereizkeriaren kontrako” III. astea egingo da Getxon. Beraz, kulturarteko topaketa honetan egingo diren proiektio zinematografikoetara eta tailerretara etorri ahal izango duzu.



EKAINA (18-22)

2000. urtean NBEaren Batzar Nagusiak aho batez hartutako ebazpen berezi baten bidez ekainaren 20a **Errefuxiatuen Munduko Eguna** izendatu zen. Horrek urtero gogoratzten digu munduan milioika pertsonak berehala erreakzionatzen dutela gerraren eta jazarpenaren izugarrikerietatik, bere etxeak eta lagun maiteak galtzearen minetik eta ihesaren esperientzia beldurgarritik alde egiteko.

Ekainaren 18tik 22ra proiektio zinematografiko eta tailer batzuen bidez aztertuko dugu zein diren milaka pertsonak bere herrialdetik ihes egin behar izatea dakarten benetako arrazoiak.



IRAILA (5-8)

Kultur Etxeak antolatzen duen Getxo **folk** jaialdiak XXIII urte beteko ditu irailaren 5etik 8ra. Getxo folk jaialdia kulturarteko topaketarako espazio naturala da (2006. urtean 50.000 pertsona inguru bildu zituen). Munduko Medikuak elkartearekin batera antolatutako **Kulturartekotasunaren Karpa eta Munduko Terrazak** kulturarteko bizikidetzarako erreferentiek ematen dituzte, Bizkaian etorkinei laguntzen dien erakunde nagusienek eskuzabaltasunez laguntzen dutelako batez ere.

ABENDUA (17-21)

Abenduaren 18an Nazio Batuetan **Etorkinen Munduko Eguna** ospatzen da. Abenduaren 17tik 21era bitartean gizarte eta kultur jarduera

ezberdinen bidez, gainera, pertsona horiek guztiek mundu osoko herrialdeen eta batez ere Getxoren aurrerapen ekonomiko, sozial eta kulturalean egiten duten ekarpen handia aintzatesi eta balioetsi nahi da.

Eskerrak

Gai honetan laguntzeagatik, eskerrak eman nahi dizkiegu jarraian aipatzen diren guztiei:

- Paco Bailo, Huescako Kulturartekotasun Programaren koordinatzailea.
- Alberto Galindo Claros, Getxoko Boliviarraren Kirol Elkarteko burua.
- Martina Tuts.
- BILTZEN Kulturarteko Bitartekotza eta Hezkuntzarako Ekinmen Komunitarioak Koordinatze Zentroa.

GETXO

Gurasoen Eskola



- Ikastaroen iraupena hiru, lau edo bost ekitaldietakoa da.
- Adierazitako eguna lehen ekitaldikoa da.
- Ateko eguna eta ordutegia bera izango dira ikastaroa irauten duen aste guztietan.
- Ez dago alde zuzenik izena eman behar. Nahikoa da lehen egunean bertara joatearekin, adierazitako ikastetxean.
- Edozein arrazoiengatik lehen egunean joaterik ez bazenu, ondoko ekitaldietan egin dezakezu.
- Zure seme-alabak Ikastetxe horretakoak ez badira, eta ezagutzen ez baduzu, atezaindegira edo Guraso Elkartetara jo ezazu, ekitaldiak non egiten diren esan diezazuten.
- Jarduerak doanekoak dira.
- Lehen egunean gutxienez hamabi (12) pertsona agertzen ez badira, bigarren aldiz saiatuko da, eta horren ondoren, parte hartzailearen gutxieneko kopurua betetzen ez bada, bertan behera geldituko da. Zuen alderdi horretan daukazuen beste aukeren gaineko informazioa jakinaraziko zaizue. Garrantzitsua da lehen egunean bertaratzea.

Informazio gehiago nahi baduzu, telefono zenbaki honetara dei dezakezu.

944660130

Ikastaroen egutegia: urtarrila - maiatza 2007

	IKASTETXEA	GAIA	HASTEKO EGUNA			ORDUA
urtarrila	Trinitarias	Psikologia ikastaroa gurasoentzat	urtarrilak	15	astelehena	19:00
	Julio Caro Baroja BHI	Autoestimua hobetzen	urtarrilak	17	asteazkena	19:00
otsaila	Divina Pastora	Familian harremanak hobetzea	otsailak	12	astelehena	9:00
	Azkorri	Nerabeaurrekoekin bizitzea	otsailak	12	astelehena	19:00
	Zubilletas IP	Psikologia ikastaroa gurasoentzat	otsailak	13	asteartea	9:00
martxo-maiatza	Larrañazubi IP	Autoestimua hobetzen	otsailak	14	asteazkena	9:00
	Aixerrota BHI	Nerabeekin bizitzea	martxoak	19	astelehena	19:00
	Geroa IP	Autoestimua hobetzen	martxoak	21	asteazkena	15:00
	Artaza BHI	Psikologia ikastaroa gurasoentzat	martxoak	22	osteguna	19:00
	Europa	Berdinen arteko indarkeria (bullying)	maiatzak	8	asteartea	19:00
	Romo IP	Familian harremanak hobetzea	maiatzak	10	osteguna	15:00